

ERABAKIA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIARENA, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bakioko udalak Gaztelugatxeko San Joan guneko saneamendu-sarea mantentzeko lankidetzaz hitzarmena izenpetzea onartzen duena.

Gaztelugatxeko biotopo babestua, natura-monumentua izateaz gain, gaur egun aktibo garrantzitsua da Bizkaiko Lurralde Historikoko naturari lotutako turismo jasangarriaren arloan. Hain zuzen ere, daukan balio paisajistiko eta kulturalak, mitoei eta tradizioei lotutako historiak, zinegintzako erabilerak eta aspaldion turismoa erakartzen izan duen arrakasta handiak eragin dute oinarritzko instalazioak ipini behar izatea, puntu horretara hurbiltzen direnei zerbitzuak emateko, pertsona ugari biltzen baita bertan, batez ere bisitari gehien erakartzen duen Urizarreta inguruan.

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen ditu ingurumena babesteko espazioak eta eremuak. Gaztelugatxeko gunean babestu beharreko ingurumen-figura horietako batzuk biltzen dira (biotopo babestua, espezie jakin batzuentzako interes bereziko eremuak, Natura 2000 Sarea...).

ACUERDO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, por el que se aprueba la suscripción del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bakio para el mantenimiento de la red de saneamiento del enclave de San Juan de Gaztelugatxe.

El Biotopo Protegido de Gaztelugatxe, además de un Monumento Natural, supone en la actualidad un activo relevante para el Territorio Histórico de Bizkaia en términos de turismo natural sostenible. Precisamente, su valor paisajístico, cultural, su historia ligada a los mitos y las tradiciones, su uso como espacio cinematográfico y su reciente auge como punto de interés turístico, requieren de unas instalaciones básicas que den servicio a las necesidades de las personas que acuden al enclave, especialmente en la zona de Urizarreta, localización donde mayor número de visitantes se concentra.

La Diputación Foral de Bizkaia gestiona los espacios y áreas de protección ambiental. En el enclave de Gaztelugatxe confluyen varias de estas figuras ambientales a salvaguardar (biotopo protegido, áreas de interés especial para determinadas especies, Red Natura 2000...)





Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak Bakioko Udalari ematen diote hondakin-urak ebakutzeko eta tratatzeko eskumena. Bestalde, Foru Aldundiari dagokio Bizkaiko Lurralde Historikoan zerbitzu horiek osorik eta egoki ematen direla ziurtatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 39.2 artikulua ezartzen duenez, herri-administrazioek hitzarmenak egin ditzakete obra hidraulikoak egiteko eta finantzatzeko.

Lankidetzeta-hitzarmenaren xedea da erakunde bakoitzak Gaztelugatxeko San Joane ingurune naturala bisitatzen duten pertsonentzako eskuragarri dauden Urizarreta guneko zerbitzu-instalazioen mantentze-lanei dagokienez hartzen dituen konpromisoak ezartzea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 47. artikulua eta hurrengoak aukera ezartzen du, Herri Administrazioek aginduta, duten kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzeko, bitarteko eta zerbitzu publikoaren baterako erabilera errazteko, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezten laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria betetzeko, beste administrazio batzuekin hitzarmenak sinatu ditzaten.

Hori dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17 eta 66. artikuluek eta Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren 5. Xedapen Gehigarriak emandako ahalmenak erabiliz, hitzarmen horiek sinatzeko baimena emateko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

Hitzarmen honek bete egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuaren 45 bis artikuluan ezarritako baldintzak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorren testu bategina garatzen duena.

La Ley de Bases del Régimen Local, así como la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, otorgan al ayuntamiento de Bakio la competencia para la evacuación y tratamiento de las aguas residuales. Por su parte, corresponde a la Diputación Foral asegurar la prestación integral y adecuada en el Territorio Histórico de Bizkaia de dichos servicios.

El artículo 39.2 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas del País Vasco, establece la posibilidad de que las Administraciones Públicas puedan celebrar convenios para la realización y financiación de obras hidráulicas.

El convenio de colaboración tiene por objeto establecer los compromisos que cada institución adquiere en relación con el mantenimiento de las instalaciones de servicio de la zona de Urizarreta disponibles para las personas que visiten el entorno natural de San Juan de Gaztelugatxe

El art. 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece la posibilidad de que las Administraciones Públicas puedan establecer convenios con otras Administraciones Públicas que tengan por objeto mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

En su virtud, en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y la Disposición Adicional 5ª de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, la competencia para autorizar la firma de estos convenios corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia.

El convenio cumple con los requisitos establecidos en el artículo 45 bis del Decreto Foral de la DFB 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del THB, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.





Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, izan ere, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 1eko 40/2015 Legeak 47, artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren mende dago.

Adierazitakoagatik guztiagatik, hurrengo erabaki proposamena aurkezten zaio Bizkaiko Foru Aldundiari:

Está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, rigiéndose por lo estipulado en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Por lo expuesto, se somete a la consideración de la Excm. Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA.- Baimentzea Gaztelugatxeko San Joan guneko saneamendu-sarea mantentzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bakioko udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena sortzea.

Hitzarmen horretan jasotzen dira, Gaztelugatxeko San Joan guneko saneamendu-sarea mantentzeko hain zuzen, alderdi bakoitzak hartzen dituen betebeharrak eta konpromisoak. Hitzarmen horren testua eranskin gisa erantsi da.

- 1. eranskina: Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bakioko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, Gaztelugatxeko San Joan guneko saneamendu-sarea mantentzeko.

BIGARRENA.- Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru diputatu andereari ahalmena emango zaio, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean aurreko xedapenean zerrendatutako hitzarmena sina dezan, bai eta sinatutako hitzarmena garatzeko eta burutzeko egoki ikusten dituen xedapenak eman ditzan ere.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea lankidetzeta-hitzarmen hau izenpetzen dutenei eta Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO.- Autorizar la celebración del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bakio para el mantenimiento de la red de saneamiento del enclave de San Juan de Gaztelugatxe.

En el citado convenio, cuyo texto se adjunta como anexo 1, se recogen las obligaciones y compromisos asumidos entre las partes.

- Anexo 1: Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bakio para el mantenimiento de la red de saneamiento del enclave de San Juan de Gaztelugatxe.

SEGUNDO.- Facultar a la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura para que, en nombre de la Diputación Foral de Bizkaia, suscriba el convenio enumerado en el dispositivo precedente, así como para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo y ejecución del convenio suscrito.

TERCERO.- Dar traslado de la adopción del presente acuerdo a quienes figuran como signatarios del presente convenio de colaboración cuya celebración se autoriza y al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzuko burua / la Jefa de Servicio de Gestión Ambiental

Sin./Fdo.: Nerea Escallada San Vicente





O. E. /Vº Bº

Ingurumeneko Zuzendari Nagusia/ el Director General de Medio Ambiente

Sin./Fdo.: Alejandro Guillermo Peláez Astorquia

Aurreko tramitean ezarri denarekin ados, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio/De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Foru Diputatua/ la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura

Sin./ Fdo.: Arantzazu Atutxa Lejarreta



1. ERANSKINA/ ANEXO 1

LANKIDETZA-HITZARMENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN (INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILA) ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKOA, GAZTELUGATXEKO SAN JOAN GUNeko SANEAMENDU-SAREA MANTENTZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO DE MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA, Y EL AYUNTAMIENTO DE BAKIO PARA EL MANTENIMIENTO DE LA RED DE SANEAMIENTO DEL ENCLAVE DE SAN JUAN DE GAZTELUGATXE.

BILDU DIRENAK

Alde batetik, **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**, eta horren izenean eta ordezkarietan **ARANTZAZU ATUTXA LEJARRETA** andrea, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatua den aldetik. Horrek honako hitzarmen hau sinatzeko ahalmena dauka Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2024ko ____aren __ (e)(a)n egindako bileran hartutako erabakia dela bide.

Bestetik, **AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA** andrea, **BAKIOKO UDALAREN** izenean eta horren ordezkarietan (IFK: P4801600J).

Alde bakoitzak bere entitatearen izenean eta ordezkarietan jardun du. Halaber, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko behar den jarduteko gaitasun juridikoa aintzatetsi diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTENA

LEHENENGOA: Gaztelugatxeko biotopo babestua, natura-monumentua izateaz gain, gaur egun aktibo garrantzitsua da Bizkaiko Lurralde Historikoko naturari lotutako turismo jasangarriaren arloan. Hain zuzen ere, daukan balio paisajistiko eta kulturalak, mitoei eta tradizioei lotutako historiak, zinegintzako erabilerak eta aspaldion turismoa erakartzen izan duen arrakasta handiak eragin dute oinarritzko instalazioak ipini behar izatea, puntu horretara hurbiltzen direnei zerbitzuak emateko, pertsona ugari biltzen baita bertan, batez ere bisitari gehien erakartzen duen Urizarreta inguruan.

BIGARRENA: Gaztelugatxen ingurumena babesteko hainbat figura aplikatzen dira, eta horien kudeaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren egitekoa da:

- Espazioa biotopo babestua da, irailaren 15eko 229/1998 Dekretuak adierazita. 2023an natura-monumentua izendatu zuten.

REUNIDAS

De una parte, la **DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA-BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**, y en su nombre y representación, D^a. **ARANTZAZU ATUTXA LEJARRETA**, en calidad de Ilma. Sra. Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura, quedando facultada para suscribir el presente convenio, por acuerdo de la Diputación Foral en su reunión del Consejo de Gobierno celebrado el día de 2024.

Y de la otra parte, D^a. **AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA**, en nombre y representación del **AYUNTAMIENTO DE BAKIO** (CIF P4801600J).

Las partes actúan en nombre y representación de sus entidades respectivas, reconociéndose mutuamente capacidad jurídica de obrar necesaria para la celebración del presente Convenio de Colaboración y,

EXPONEN

PRIMERO: El Biotopo Protegido de Gaztelugatxe, además de un Monumento Natural, supone en la actualidad un activo relevante para el Territorio Histórico de Bizkaia en términos de turismo natural sostenible. Precisamente, su valor paisajístico, cultural, su historia ligada a los mitos y las tradiciones, su uso como espacio cinematográfico y su reciente auge como punto de interés turístico, requieren de unas instalaciones básicas que den servicio a las necesidades de las personas que acuden al enclave, especialmente en la zona de Urizarreta, localización donde mayor número de visitantes se concentra.

SEGUNDO: En Gaztelugatxe confluyen diversas figuras de protección ambiental, cuya gestión corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia:

- El espacio es Biotopo Protegido, declarado mediante Decreto 229/1998, de 15 de septiembre. En 2023 pasó a denominarse Monumento Natural.





- Natura 2000 Sare Ekologikoaren barruan dago. Kontserbazio bereziko eremua (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremua (HBBE) da, ekainaren 4ko 358/2013 DEKRETUAK ezartzen duenez, zeinaren bidez izendatzen baitira kontserbazio bereziko eremu Urdaibai guneko eta Gaztelugatxeko San Joaneko 4 toki -Europa mailan garrantzitsuak direnak-, eta zeinaren bidez onartzen baitira Urdaibaiko itsasadarrarentzako KBEko eta HBBEko kontserbazio-neurriak.
- Interes bereziko eremua da ekaitz-txori europarrarentzat eta ubarroi mottodunarentzat
- Hegaztiak hariteria elektrikotik babestuta dauden eremua da (Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindua).
- El Espacio forma parte de la Red Ecológica Europea Natura 2000. Es ZEC y ZEPA según el DECRETO 358/2013, de 4 de junio, por el que se designan Zonas Especiales de Conservación 4 lugares de importancia comunitaria del ámbito de Urdaibai y San Juan de Gaztelugatxe y se aprueban las medidas de conservación de dichas ZEC y de la ZEPA Ría de Urdaibai.
- Es área de interés especial para el ave paíño europeo y el cormorán moñado.
- Ha sido declarada zona de Protección de Avifauna frente a tendidos eléctricos (Orden de 6 de mayo de 2016, de la consejera de Medio Ambiente y Política Territorial).

HIRUGARRENA: Bakioko Udalak Toki Araubidearen Oinarrien Legean ezarritako eskumenak dauzka, eta Euskadiko Toki Erakundeko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera, uda horri berari dagozkio hondakin-uren hustuketa eta tratamendua. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Bizkaiko Lurralde Historikoan zerbitzu horiek osotasunez eta zuzen emango direla ziurtatzea. Era berean, Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 39.2 artikulua ezartzen du erakunde publiko eskudunek hitzarmenak egin ahal izango dituztela obra hidraulikoak egiteko eta finantzatzeko.

LAUGARRENA: 169/2014 Foru Dekretuak 44. artikuluan xedatzen duena eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoko araubide juridikoarenak, 47.1 artikuluan xedatzen duena aplikatuz, lankidetzahitzarmen hau sinatu behar da Gaztelugatxan dauden instalazioetan, Urizarreta inguruan zehazki, saneamendu-sarea mantentzeko zerbitzuak arautzearen.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren (Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila) eta Bakioko Udalaren arteko lankidetzara arautzea, Gaztelugatxeko San Joan natura-monumentura bisitan etortzen diren pertsonentzat Urizarretan dauden saneamendu-instalazioak mantentzeko.

TERCERO: El Ayuntamiento de Bakio ostenta las competencias establecidas en la Ley de Bases de Régimen Local, así como en la Ley 2/2016 de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi, correspondiéndole la evacuación y tratamiento de aguas residuales. Por su parte, corresponde a la Diputación Foral asegurar la prestación integral y adecuada en el Territorio Histórico de Bizkaia de estos servicios. Asimismo, el artículo 39.2 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas del País Vasco establece que las administraciones públicas competentes podrán celebrar convenios para la realización y financiación de obras hidráulicas.

CUARTO: Que en virtud de lo dispuesto en el artículo 44 del Decreto foral 169/2014 y en el artículo 47.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen jurídico del Sector Público, procede la firma del presente Convenio de Colaboración al objeto de regular el mantenimiento de las instalaciones de saneamiento de Gaztelugatxe; concretamente las localizadas en la zona de Urizarreta.

CLÁUSULAS

PRIMERA: OBJETO.

El presente convenio tiene por objeto establecer las relaciones de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Medio Natural y Agricultura) y el Ayuntamiento de Bakio para regular el mantenimiento de las instalaciones de saneamiento de la zona de Urizarreta, disponibles para las personas visitantes del entorno del monumento natural de San Juan de Gaztelugatxe.



BIGARRENA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISOAK.

Bizkaiko Foru Aldundiak honako konpromiso hauek beteko ditu lankidetzaz hitzarmen honen esparruan Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren bidez:

- a) Sei hilean behin garbiketa egitea eta noizean behin esku hartzea (bisitari asko izatearen ondorioz instalazioek funtzionamendu txarra dutenean) udal saneamendurako instalazioaren zati hauetan:
 - 1. tarte: 196. lursaila ipar-muturrean dauden komunen hartuneen eta San Pelaioko hondakin-uren ponpatze-estazioaren (HUPE) arteko grabitate-hodia.
 - 2. tarte: San Pelaioko hondakin-uren ponpatze-estazioaren eta Bakioko hondakin-uren araztegiaren arteko zirkulazio behartuko hodia.
- b) Sei hilean behin, San Pelaioko hondakin-urak ateratzea ponpen putzutik (HUPE), baita ur horiek kendu eta tratatzea ere.
- c) Sei hilean behin, San Pelaioko HUPEko xukatzeko aparatuak ikuskatu eta mantentzea.

Konpromiso horiek lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak indarraldiari dagokion urteko bakoitzerako behar den aurrekontu-kreditua izango du, hartutako betebeharratik eratorritako gastuaren izaerari egokituta.

Aurrekontuko zainpeketa hau etendura-baldintza honen menpe gelditzen da: kreditu egokia eta nahikoa izatea hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak finantzatzeko 2025, 2026, 2027 eta 2028 ekitaldietan.

HIRUGARRENA: BAKIOKO UDALAREN KONPROMISOAK.

San Pelaioko HUPE dagoen esparruan zaintza-lanak egitea, solidoak ateratzea eta aldi aldi garbiketa egitea. Horrez gain, instalazioak ustiatzeko eta mantentzeko ohikoak diren gainerako lanak.

SEGUNDA: COMPROMISOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Medio Natural y Agricultura, en el marco del presente Convenio de Colaboración, asumirá los siguientes compromisos:

- a) Realizar una limpieza con periodicidad semestral e intervenir, de forma ocasional (en caso de mal funcionamiento de las instalaciones por una afluencia masiva de visitantes), en los siguientes tramos de la instalación de saneamiento municipal:
 - Tramo 1: Conducción por gravedad comprendida entre el punto de acometida de los aseos ubicados en el extremo norte de la Parcela 196 y la entrada a la Estación de Bombeo (EBAR) de San Pelaio
 - Tramo 2: Conducción forzada comprendida entre la salida de la EBAR de San Pelaio y la entrada a la Estación Depuradora de Aguas Residuales (EDAR) de Bakio.
- b) Vaciado semestral de aguas residuales del pozo de bombas de la EBAR de San Pelaio incluso retirada y tratamiento de las mismas.
- c) Revisión semestral y mantenimiento de aparataje de achique de la EBAR de San Pelaio

Para la consecución de estos compromisos la Diputación Foral de Bizkaia dispondrá el crédito presupuestario necesario para cada una de las anualidades que corresponden al periodo de vigencia, adecuado a la naturaleza del gasto derivado de las obligaciones contraídas.

La consignación presupuestaria queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del presente convenio en los ejercicios 2025, 2026, 2027 y 2028.

TERCERA: COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE BAKIO.

Realizar las labores de vigilancia, retirada de sólidos y limpieza periódica del recinto en el que se aloja la EBAR de San Pelaio, así como el resto de tareas de explotación y mantenimiento ordinario de las instalaciones.





LAUGARRENA: KONPROMISOAK EZ BETETZEAK ALDEEI EKARRIKO DIZKIEN ONDORIOAK.

Hitzarmena sinatzen duten aldeek beren gain hartuko dute hirugarrenei egin dakizkiekeen kalteen erantzukizuna, bai eta horrek eragindako edozein ondoriorena ere, aktibitatea garatzean jokaera okarren bat egiteagatik edo arauren bat ez betetzeagatik.

BOSGARRENA: HITZARMENAREN BURUTZAPENA ETA HARTUTAKO KONPROMISOAK JARRAITU, ZAINDU ETA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK.

Natura Ingurune eta Nekazaritza Sailak eta Bakioko Udalak hitzarmen honen Jarraipen Batzordeari jakinaraziko diote beren konpromisoak betetzen dituztela, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

SEIGARRENA: JARRAIPEN BATZORDEA.

1.- Hitzarmen honen baitan Jarraipen Batzordea sortu da. Batzorde horren xedeak baterako jarraipena egitea eta alderdien jarduerak koordinatzea izango dira, bakoitzak bere eskumen eta zereginen eremuaren barruan jarduten duela, hartutako betebeharrak eta hitzarmen honen helburu orokorrak betetzeko.

2.- Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

- Betetzeko eta interpretatzeko egon daitezkeen arazoak konpontzea.
- Hitzarmen hau betez aldeek egingo dituzten jarduketa guztiak jarraitu eta koordinatzea, kontuan hartuta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete behar direla helburua betetzeko.
- Hitzarmen honen xedea errazago betetzeko beharrezko inguruabarrak sustatzea, sortzen diren gorabehera guztiak baloratuta, gorabehera horien erruz alderdietako batek bere konpromisoak betetzeko eragozpenak baditu edo bete ezin baditu; kasuan kasu, alderdiei proposamen egokia aurkeztuko die.
- Legez dagozkion gainerakoak.

3.- Hauexek izango dira Jarraipen Batzordeko lau kideak:

CUARTA.-CONSECUENCIAS POR INCUMPLIMIENTOS Y COMPROMISOS ASUMIDOS POR LAS PARTES.

Será responsabilidad de cada una de las partes firmantes hacer frente a cualquier consecuencia derivada de los daños y/o perjuicios que se pudieran ocasionar a terceros, con motivo de cualquier actuación que realice por acción u omisión para el desarrollo de la actividad.

QUINTA.- MECANISMOS DE SEGUIMIENTO, VIGILANCIA Y CONTROL DE EJECUCIÓN DEL CONVENIO Y COMPROMISOS ADQUIRIDOS.

El Departamento de Medio Natural y Agricultura y el Ayuntamiento de Bakio, darán cuenta ante la Comisión de Seguimiento del presente convenio del cumplimiento de sus respectivos compromisos, con indicación de las actuaciones realizadas y de los resultados obtenidos.

SEXTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.

1.- En el seno del presente Convenio se crea una Comisión de Seguimiento cuyo objeto será efectuar el seguimiento conjunto y coordinar las actuaciones de las partes, dentro del marco de sus respectivas competencias y funciones, en orden al cumplimiento de las obligaciones contraídas y objetivos generales del presente Convenio.

2.- Serán funciones de esta Comisión de Seguimiento:

- Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan presentarse.
- Seguimiento y coordinación de todas aquellas actuaciones que lleven a cabo las partes en cumplimiento de este Convenio, teniendo en cuenta que el cumplimiento del objeto previsto se halla sujeto a que se den las condiciones precisas en cada supuesto.
- Promover las condiciones que sean necesarias para favorecer el cumplimiento del objeto de este Convenio, valorando todas aquellas incidencias que puedan producirse y dificulten o impidan el cumplimiento por parte de alguna de las partes de sus compromisos, elevando, en su caso, la oportuna propuesta a las partes.
- Aquellas otras que legalmente le correspondan.

3.- La Comisión de Seguimiento estará integrada por cuatro miembros:





- Bi Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean: Ingurumeneko zuzendari nagusia eta Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzuko burua, edota, hala badagokio, gai horretan eskumenak dituzten ordezkariak.
- Bi Bakioko Udalaren izenean.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusiari dagokio batzordeburu izatea.

4.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean Jarraipen Batzorde hau hitzarmen honetan aurreikusitako egoeretan bilduko da, eta betiere, aldeetako batek eskatzen duenean eta bilera-eskaeraren arrazoia adierazi ondoren.

Batzordea baliozkotasunez eratu dadin, kideen gehiengo bildu beharko da eta erabakiak gehiengoaren botoez hartuko dira.

5.- Hitzarmen honetan Jarraipen Batzordearen araubideari buruz zehatz-mehatz aurreikusten ez diren kontuetan kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, atariko titulua, II. kapitulua).

ZAZPIGARRENA: HITZARMENA ALDATZEA.

Hitzarmen hau aldatu ahal izateko aldeak ados jarri beharko dira.

ZORTZIGARRENA: HITZARMENAREN INDARRALDIA ETA AZKENTZEKO ARRAZOIAK.

Hitzarmen hau sinatzen denean jarriko da indarrean, eta urtebeteko iraupena izango du. Urtez urte luzatu ahal izango da, alderdiek isilbidez hala erabakitzen badute, baldin eta berariaz uko egiten ez badiote, gehienez ere 4 urtez.

Hitzarmenak irauten duen lehenengo lau urteak igarotakoan, urteko beste luzapen batzuk adostu ahal izango dira, gehienez ere lau urtekoak.

Aurreko idatz-zatian adierazitako indarraldia bukatu delako azkenduko da hitzarmena, edo hitzarmena suntsiarazi dela sinatu duten bi alderdiak ados jarriko direlako, hitzarmena deuseza dela adierazten duen Epaitegiaren erabakia dagoelako edo hitzarmenean edo beste lege batzuetan ezarrita dagien beste edozein arrazoigatik.

- Dos en representación de la Diputación Foral de Bizkaia: el/la Director/a General de Medio Ambiente y el/la Jefe/a del Servicio de Gestión Ambiental, o en su caso los puestos a los que por razón de materia compete este asunto.
- Dos en representación del Ayuntamiento de Bakio.

La Presidencia de la misma corresponderá a el/la Director/a General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia.

4.- Durante la vigencia del Convenio, esta Comisión de Seguimiento se reunirá en los supuestos previstos en el presente Convenio y, en todo caso, cuando así lo solicite una de las partes indicando el motivo de la solicitud de reunión.

El quórum necesario para la válida constitución de la Comisión será el de mayoría de sus componentes, adoptándose sus acuerdos por mayoría de votos.

5.- En lo no previsto expresamente en este Convenio, sobre el régimen de la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulados en el Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

SEPTIMA.- MODIFICACIÓN DEL CONVENIO.

El presente Convenio podrá ser modificado por acuerdo unánime de las partes.

OCTAVA.- VIGENCIA DEL CONVENIO Y CAUSAS DE EXTINCIÓN.

El presente Convenio entrará en vigor a la firma del mismo y tendrá una duración de 1 año, pudiendo prorrogarse por acuerdo tácito de las partes si no ha existido renuncia expresa al respecto, de forma anual, hasta un máximo de 4 años.

Transcurridos los primeros cuatro años de duración del convenio podrán acordarse nuevas prórrogas anuales que no podrán superar los cuatro años.

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en el apartado anterior o por resolución por el acuerdo unánime de todas las partes firmantes, por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio o por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes.



Dena dela, alderdi batek konpromisoren bat betetzen ez badu, beste alderdiak zorrotz bete ditzala edo hitzarmena desegin dadila eskatu ahal izango du.

BEDERATZIGARRENA: IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.

Hitzarmen honi datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko araudia 2016/679 (EB) Erregelamendua da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Hitzarmen hau sinatzen den unean eskuragarri dagoen informazioaren arabera ez da aurreikusten hitzarmenean parte hartzen duten erakundeek hitzarmen honen prestazioak eta betebeharrak egikaritzetik eratoritzen diren datu pertsonalak tratatuko dituztenik. Baldin eta egikaritu bitartean datu pertsonalak tratatzen badira, aurretik, berariaz eta idatziz ezarri beharko dira aplikatuko den datu pertsonalen babesari buruzko araubide juridikoa arautuko duten jarraibideak, dagokion egintza juridikoaren bidez.

Alabaina, hitzarmena idatzi, sinatu eta ondoren hura zaintzeak hauxe ekarriko du: erakunde bakoitzaren ordezkari gisa jarduten duten eta hitzarmena sinatzen duten pertsonen identifikazio-datu pertsonalak tratatzeko erantzukizuna hitzarmenean parte hartzen duen eta hura sinatzen duen erakunde bakoitzak izango du; horrenbestez, jarraian ezarritako betebeharrei jarraikiz tratatuko dira (alde guztiei aplikatuko zaizkie, tratamendu-arduradun diren aldetik):

- I. Datu pertsonalen tratamendu-jarduerak baimentzea.
- II. Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela aurretiaz zaindu, tratamenduak dirauen artean kontrolatu eta tratamenduen ostean ikuskatzea.
- III. Araudiari jarraikiz, datuak tratatzeko egin beharreko eragiketetan datu pertsonalak babesteko ikuskapenak, ikuskaritzak eta eragin-ebaluzioak egitea.
- IV. Kasu bakoitzean dagozkion alde aurreko kontsultak egitea

